


Entretenitu eta gozatu



Xabier Etxaniz Erle

Hamar urte bete zituen egunean, argazki makina bat oparitu zioten gurasoek Maxeri. Harrezkero, argazkiak atera eta atera ibiltzen da, eta argazkien inguruan, edo argazkiak direla eta, hainbat saltsa, istilu, misterio... izan ditu neskatxa gazteak. Anjel Lertxundik idatzi eta Antton Olariagak ilustratutako bildumaren hirugarren alea dugu hau, eta, aurreko bietan bezala, argazki bat izango da abiapuntua.

Jakina, bilduma hauetan garrantzitsua izaten da aurreko aleak ezagutzea; honetan, esaterako, *Musubero Mon Amour* aurreko nobelan Maxek izaniko hanka sartzea aipatzen zaigu, eta hori dela eta

«Kalitatezko literaturaren bidez entretentzen du Anjel Lertxundik»

Gaztetxoen hizkera, bizimodua eta interesak ederki islatzen dira nobelan

Eleberria: Ezkutuko maitea
Anjel Lertxundi

Ilustrazioak: Antton Olariaga
Elkar, 2002
125 orrialde. 9,20 euro

dakigu agertzen den zuhurtzia argazkiaren interpretazioan. Baina, aurreko nobelak irakurri gabe ere, irakurleak ez du inolako oztoporik oraingo honetan barneratzeko, izan ere, argumentua independentea da; pertsonaiak, nahiko ongi karakterizatuak; eta ekintza, azkarra eta bizia. Maxek, dantzaldi bateko karretea errebelatu ondoren, argazkiak begiztatzen dituen bitartean, ustekabe handia izango du lagunei ateratako argazki batean, atzean, bere anaia eta Akaina droga-saltzailea elkarrekin ikustean. Egoera horretatik abiatuta, irakurleak Maxekin batera egingo du atzera, argazki hura atera zuen egunera arte, eta, gero, poliki-poliki, aurrera, anaia dantzaldian nola zegoen eta zer egiten zuen argitu nahian.

Gaztetxoen hizkera, bizimodua eta interesak ederki islatzen dira nobela honetan. Nortasunaren garapena, inde-

pendentzia, janzkera, lagunak, drogen mundua, amodioa edo musika, esate baterako. Baina baita neskena ere; etxe-ko lanak, neska edo mutilen arteko bereizketa, berdintasun nahia, exijentzia maila... Jakina, Lertxundik hau guztia misterio kutsua duen nobela honetan ederki kokatzen du, helburua entretentzea baita, baina ongi pasatze horrez gain, badago hizkeraz, hizkuntzaz, literaturaz, kontatzeko eraz disfrutatze gogoia ere. Edo beste modu batean esanda, entretentze hori kalitatezko literaturaren bidez etorri behar da, argumentua entretenigarria bada ere, istorioa kontatzeko era landua dugu (arestian komentaturiko egitura bera dugu horren adibide bat: narrazioaren erdian hasi, atzera bueltatu, eta, handik, aurrera egin); Maxe bera da istorioaren narratzailea, lehen pertsona kontaturiko istorioa dugu, baina, gainera, neska gazte baten ikuspuntutik kontaturik egoteaz gain, hizkera bera ere, zaindua izanda literatur lan on bati dagokion moduan, gazte batena dugu («kantu superra», «Gorka tontozaporeak zituen kulpak guztiak», eta abar).

Beste alde batetik, egun dauden hainbat konturen inguruan eztabaidatzeko edo gogoeta egiteko parada ere ematen digute Lertxundik eta Olariagak obra honetan. Literaturaz, musikaz, lagunez... baina baita drogei buruz, guraso eta seme-alaben arteko harremanez edo gure gizartean gizon eta emakumeen paperari buruz aritzeko ere obra aproposa dugu *Ezkutuko Maitea* gazte nobela hau.


Maxe bilduma honetako gainerako lanetan bezala, Lertxundik eta Olariagak

«Amen batean irakurri arren, gero buruan bueltaka luze egon daitekeen obra da»

liburua aprobetxatzen dute, nobelaz gain, bestelako kontu batzuei buruz aritzeko; argazki karretearen haritik (Maxe argazkilaria da bildumako lan guztien protagonista, eta hark ateratako argazkiak argumentuaren oinarri), nobela amaitu eta gero, zenbait argazki komentatzen zaizkigu *Nire albumeko beste argazki batzuk* azken atalean. Oraingo honetan, esaterako, egileek jarritako bederatzi argazkietan, Kirmen Uribe agertzen da (*Ezkutuko Maitea* poemaren ildotik, ondarrutarrak eta haren poesiaz hitz egiteko), literaturzaletasunari buruz bada beste argazki bat, parranda edo gaupasei buruzkoa, drogaren ingurukoa... eta baita ere hizkuntzaren inguruko jolas herrikoiak edo txisteak oinarri dituztenak. Testu labur, samur eta entretenigarriak dira liburuko guztiak.

Ezkutuko Maitea Lertxundi eta Olariagaren nobela hau —liburu hau, esan beharko genuke, nobelaz gain azken atal hori ere baduelako—, amen batean irakurtzen den obra da; argazkiaren misterioa eta gurasoen jarreraren inguruko zalantza argitu nahiak bultzatuko baikaitu obra di-da batean irakurtzera; baina, amen batean irakurri arren, gero buruan bueltaka luze egon daitekeen obra interesgarria dugu.

Xabier Galarretak ironia handiko poemak argitaratu ditu Hiriarekin



Poesia: Bertso askeak.
Kateatuko nautenak
Xabier Galarreta.
Hiria, 2002.
141 orrialde. 14,5 euro.

«Ez dakit poesia zer den, bere zentzua zertan datzan», irakur daiteke Xabier Galarretak Hiriaren eskutik kaleratu duen poesia liburuaren kontrazalean. *Hilko zaitut* irakur daiteke, berriz, liburu zabalduraren lehen poemaren lehen esaldian. Poesia ausarta da, beraz, poesia zer den ez dakien —eta, gainera, axola ez dion— poeta honena. Betiko gaiei buruz —maitasuna, existentzia...—, berezko estiloan idatzi du, ironia askorekin, askotan. Poesia liburu honen aurretik, *Gauak gauari*, *Zenbaki sorginduak*, *Itsasargiko misterioa* eta beste liburu batzuk argitaratu ditu idazleak.


Maitasunarekin bete ditu Joan Mari Irigoienek azken eleberriaren orrialdeak



Eleberria: Ipuin batean bezala
Joan Mari Irigoien.
Elkar, 2002.
266 orrialde. 15,5 euro.

Maitasunezko nobela batekin itzuli da Joan Mari Irigoien literaturara. Maitasunaren gazi-goza eta gaixotasunen gorabeherak ekarri ditu berekin, eleberri existentzialista honetan. Hala, malkoa eta irria tartekatzen dira kontakizunean, eta gozoak eta garratzak dira pertsonaien pasadizoak. Hala ere, bizitzaren aldeko kantua da sakonean, zoritxarraren gainetik beti baitaude bizipozerako arrazoiak: «Bizitzak bazueta kolpe izugarriak ematen dizkigu. Baina gure iraun nahia handia da», uste du idazleak. Al-tzan eta Almeriako Alpujarretan kokatu du kontakizuna.

V.C. Andrewsen eleberri ospetsua euskaraz argitaratu du Ekilorek



Eleberria: Ganbarako loreak
V.C. Andrews.
Itzulpena: Aitor Arana.
Ekilore, 2002.
399 orrialde. 14 euro.

Idazle ezagun baten liburu ospetsua ekarri du euskarara Ekilore argitaletxeak: V.C.

Andrewsen *Ganbarako loreak*, hain zuzen ere. Itzulpena Aitor Aranak egin du. Etxe erraldoi batean lau seme-alabak giltzapetu dituen amaren istorioa mundu zabaleko milioika irakurlek irakurri dute dagoeneko. Eta, oraindik, irakurleak erakartzen jarraitzen du. Izan ere, amaren maitasun bixiak nahiz anai-arreben arteko maitasun ezohikoek istorio harrigarri eta erakargarri bat egiteko bidea ematen dute. Finean, misteriozko eta ekin-tza askoko eleberria da.